

SAGUTXOREN FESTA

Gidoia

120 hitz

Patxi sagutxok festa bat ospatu nahi du igandean, arratsaldeko bost eta erdietan.

Horregatik, astelehenean oso goiz jaiki da: goizeko seietan.



Asteartean etxea garbitu du: ur beroa erabili du.

Asteazkenean erosketak egin ditu: lehenengo arrautzak erosi ditu eta gero irina.

Ostegunean txokolatezko pastelak prestatu ditu.

Txokolatea asko gustatzen zaio.

Ostiralean puxikak puztu ditu. Puxika asko daude: 5 gorri, 3 urdin, 2 hori eta 2 berde.

Larunbatean etxea apaindu du: puxikak atearen aurrean jarri ditu.

Patxi sagutxo oso pozik dago. Igandea da eta lagun asko etorri dira bere festara. Hor daude Kriski eta Tom.



Kriski alaia eta ona da, bibote luzeak ditu eta gaur txanoa jantzi du.

Tom ile horia eta ausarta da. Orain bere aurrean hanburgesa bat du eta berehala jango du.

Sagutxoren festa ederra, Steve Lavis (moldatuta)